

sloganak eta eguneroko praxia

Slogan artean bizi gara aspaldi honetan. Mila sloganen zaparrada ari gara jaisten: pegatinak, txartelak, kartelak, anuntzioak, ikurriña, etab. euskaraz egitera eta Euskal Herria egitera gonbidatzen gaituzte edonun eta noiznahi. Bestalde, kaleko manifestapenak ere ugaltzen ari dira aspaldiko partez. Badirudi egoera larderiakoi baten aldatzea nahi genukeela, eta hor gabilta zalapartaka, oihuka eta deihadarka askotan.

Gure herri giroaren aurrean, kezka bat dut itsatsia hondo-hondoan: gure eguneroko bizitza eta praxia kalean darabiltzagun slogan horiekin ados ote dago? Nik neuk baditut neure dudak eta zalantzak. Izan ere, gauza asko eta xebreak ikusten dira gure artean (gauza asko ikusteko jaiok gara nonbait).

Bada jendea, esate baterako ikastolan eta ikastolaren inguruan dabilena eta gero etxean eta lagunartean euskaraz egiten ez duena. Badira euskaraz jakin eta ia beti erdaraz mintzatzen direnak, eta hori euskaldunen artean, hots, inolako atxakiarik ez dagoen tokietan. Gure ikastola inguruko giroa nahiko eskasa da benetan. Eta ikastola bezala, beste erakunde eta herri mugimendu asko sar genitzake kritika honen arragoan.

Egia esan, gisa hortako jokabideek neure onetik ateratzen naute eta bada ordua horrelako posturak eta horrelako

jendea gogorki salatzen hasteko, gogorki eta etengabe gainera. Bestela, ez goaz ino-
ra.

Nik ezin dut sinetsi, gauza errazentan amor ematen duenak (eta euskaldunen artean euskaraz egitea gauza erraza da gaur) bestelakoetan gauza handirik egin dezakeenik. Farregurea ere ematen dit (?) zenbait eztabaida pedante eta ideologikok horrelako gauza sinpleetan huts egiten dugun bitartean. Tragikomedia handiegia da, inondik ere, iraultza orokorra eta Euskadiren askatasuna ahobetean aldarrikatzen dugun bitartean, zenbait gauza elementaletan ikusten den zabarkeria.

Herrigintzak, serioa izango bada, giza etika bat eskatzen du eta etika horrek gure eguneroko bizitza osoa harrapatzen du, bai kalekoa eta bai etxe barrukoa.

Sloganak eta eguneroko bizitza lotzen hasi beharrean gaude. Bestela, arpa jotzen gabilta. Eta okerrera beste hau da: luzaro horrela jarraitzen bagara, gure herrigintza ez dela sinesgarri gertatuko.

Tragadera handiak behar dira noski (eta ni ez naiz elefantea) zenbait gauza ikusi eta isilean irensteko. Bada ordua gure arteko hainbeste jokoera txepel kupidarik gabe salatzeko. Hori ere etikaren eskakizuna da.

Herrigintzak seriotasun minimo bat eskatzen du. Horixe da guztia.●

JOXE LIZARRALDE



BURGESAK ETA EUSKARA

Euskal burgesia bi aldiz gertatzen da euskararen etsai. Lehenengo, simple ta soil, etsai delako, denok dakigun zentzuan. Eta bigarren, euskara burgesiarekin asoziatzen delako ere, euskararen etsai gertatzen ari da burgesia baskoa.

Euskara burgesiarekin asoziatzea, bidegabezko da, baina ez itxuragabezko. Gerra aurrean asoziazio hori eginarazten zuena, "lau deitura garbiko baskoen" ideologia hiritarra zen, sasi-baserritarra. Eta orain, ideologia hori pasea edo, hobe disimulatuagoa, daukagularik, eguneroko hamar mila gora-behera eginarazten du asoziazio berbera.

Begira: Franco hil zen eta nik ez dakit zenbait aldizkari sortu diren harrez gero Euskadin. PUNTO Y HORA, GARAI, BERRIAK... Laster EGIN egingo da. Egia esateko, ni poztu egiten naiz. Uste dut, Euskadik ez duela biderik holakoxe prentsa gabe. Beraz, horiek ateratzeko Jesukristoren milioiak bildu omen dira, eta ni poztu egiten naiz.

Amorrazten nauena, da, horiek denak etortzen zaizkigula beti esanez, euskararen alde ez dakit zer egingo dutela eta hori eta zera, dena oso polita. Gero ez dute ezer egiten. Eta normala iruditzen zait ezer ez egitea. Horien konzepzioak ongi erakusten bait du, puntatik puntaraino, han euskara sobrante dagoela, eta erruki txar batez bakarrik sartu dela, aurpegia salbatzeko ere. Kritika asko egiten zaie, euskara guti dakartelako. Nik nahiago nuke batere ekarriko ez balute. Gutien-gutienez periodismo bat egingo lukete orduan, hainbeste partxe itsusi gabe. Gure situazioa horixe baldin bada, erdipurdikeria eta gezurra baino hobe dugu gauza on bat, erdara soilean bada ere. Bestela, guziz bestelako konzepzioz bururatu beharko ditugu periodikoak, euskaraz eta erdaraz, benetan elebitako.

Batek galdetzen du, nondik nora sortu diren milioiak hain erraz, hainbeste erdal aldizkari bat-batean bizteko (jakina, euskararen alde). Hor daude, ba, Z. ARGIA, ANAITASUNA... Aspaldian ari dira lanean. Eta miloirik ez bide zaie hain erraz inguratu eta ez inguratzen. Miloiak (euskararen alde, jakina) errazago soltatzen dituzte burgesek, Alderdiak, taldeek, beste akdizkari horietako euskararen alde... Bi euskara dago, nonbait.

Bai, ba, bi euskara dago: euskara bat, beti bezain gaizki oradaindua orain ere eta bestea, erdal aldizkaritako enplastoia. Bat euskara da eta bestea euskara politikoa (amaginarreba "ama politiko" den moduan).●

JOXE AZURMENDI